


kultur leihoa • kultur leihoa • kultur leihoa

ezagutzen al
duzu Donostia?

Landarbasoko sansonarria

On Joxe Miel Barandiarani entzunda, banekien «Arriuztuna» deituriko harkaitz handi bat bazela Landarbason. Zenbait urte beranduago Astigarragan istorio zaharrak biltzen ari nintzela, herri honetako Atxurroko baserritarrek kontatu zidaten legenda polit hau: «*bazan Atxurromendin jentil bat eta Landarbason bizi zan beste jentil batekin asarretu zan eta onek arri aundi bat bota zion aballa batekin artuta. An da arri ura, Landarbaso eta Ernanimendiya artian piñudiyan iya gordia. "Buztanarriya" deitzen diyogu arri ari.*» Landarbaso barrendegikoa den Astabizkar baserrian ere ziurtatu zidaten harri haren kokapena Landarbaso eta Hernani-mendia



arteko muga inguruan. Baserri honetan «Sansonarriya» izenez ezagutzen duten Larratz eta Bentatxuritik abiatu eta bertara inguratu nintzelarik, Igoingo lepoa pasata, han agertu zitzaidan azkenean

harri hura Epeleko bidea-ren azpikaldean.

5-9 metro altuerako eta 2-4 metro zabalerako harkaitz handi bat da, oso zorrotza gailurrean -hargorria-. Zorroztasuna gorantz duen aizkora erraldoi

baten itxura imaginatu dezakegu bertatik ikusten dugularik. Atxurromendiko jentilaren aizkora ote? Kolpatu ote zuen Landarbasokoa? Auskalo!

TESTUA ETA ARGAZKIA: JOSU TELLABIDE

BILINTX MEGADENDA



- AGENDAK
- KARTAPAZIOAK
- ESFERAK
- KLASIFIKADOREAK
- MOTXILAK
- ETA BESTE ZENBAIT ARTIKULUETAN...

FERMIN KALBETON, 30 - DONOSTIA - TFNOA.: 420930